	OÑATIKO UDALA	
	Erregistro Data	
	2014 URR 28	
SARBERRA	IRIBERRA	
1985		

Oñatiko EHBILDU UDAL TALDEAK Osoko Bilkurak bere egin dezan honoko mozioa aurkezten du:

**“KONSTITUZIO-AUZITEGIAK KATALUNIako KONTSULTA BEHIN-BEHINEKOZ BERTAN BEHERA UZTEKO HARTUTAKO ERABAKIARI BURUZKO MOZIOA**

2014ko irailaren 19an, Kataluniako Parlamentak irailaren 26ko Kataluniako 10/2014 Legea onartu zuen, aldeko 106 botorekin eta aurkako 28rekin. Berresteko ez diren herri-kontsultei eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege hori 2014ko irailaren 27an argitaratu zen Kataluniako Generalitatearen Aldizkari Ofizialean.

Halaber, egun bereko aldizkariaren eranskin gisa argitaratu ziren Kataluniako Generalitateko presidentearen irailaren 26ko 129/2014 Dekretua (Kataluniaren etorkizun politikoari buruzko kontsulta deitzekoa) eta horren eranskinak.

2014ko irailaren 29an, Mariano Rajoyren gobernuak erabaki zuen konstituzio-kontraktasuneko errekurtsioa aurkeztea Konstituzio Auzitegian, eskatzeko legea eta dekretua behin-behinekoz bertan behera utz zitzaiten.

Irailaren 29an bertan, Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen bi arau-testuak behin-behinekoz bertan behera uztea.


Horregatik guztiagatik, Oñatiko Udaleko Osoko Bilkurak, hau erabaki du:

**ERABAKIA**

- 1.- Oñatiko Udalak defendatzen du herriek eta pertsonak beren etorkizuna demokratikoki erabakitzeko askatasuna dutela, berriki Eskozian ikusi den moduan. Izan ere, Oñatiko Udalaren ustez, etorkizuna ezin da inposizioekin eraiki, oinarri demokratikoen eta herriek eta pertsonak adierazitako borondate askearen gainean eraiki behar da.
- 2.- Oñatiko Udala ez dago inola ere ados Espainiako Gobernuak aurkeztutako errekurtsioarekin eta Konstituzio Auzitegiak hartutako erabakiarekin, katalanek beren etorkizuna askatasunez erabakitzeko eskubidearen aurkakoak baitira.
- 3.- Oñatiko Udalak eskatzen dio Konstituzio Auzitegiari bi xedapen horiek behin-behinekoz

bertan behera uzteko erabakian atzera egiteko eta aukera emateko katalanei 2014ko azaroaren 9an askatasunez adierazteko beren iritzia.

4.- Oñatiko Udalak erabaki hau Espainiako Gobernuari, Konstituzio Auzitegiari eta Kataluniako Generalitatari bidaliko dio.”

A handwritten signature in black ink, consisting of several overlapping loops and a long horizontal stroke extending to the right.